

Andredena Mariaren zeruratzea

Bezpera arraltsaldeko meza

131. Salmoa

L.a. 76 / S.a. 38

(5+5 / 5+5)

Jau-na, e-gi-zu on-gi e-to-rri lu-rrean sor-tu zai-tu - e-na-ri.

**Jauna, egizu ongi etorri
lurrean sortu zaituenari.**

Goazen sar gaiten haren baitan,
Ahuspez haren aitzinean.
Egon-tokirat, Jauna, jeiki
Arka sainduan Jaun ibilki.

Apezak dire garbiz jauntzi,
Zureak oro kantu, jauzi.
Orroit Dabidez, orroit, Jauna,
Ez uka zure kristo dena.

Zion du-eta hautatua:
Hor du Jainkoak jar-lekua.
Hau dut betiko egon-toki :
Nere hautuz hor naiz egoki.